

## **GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL KONTSEILUA 2021eko EKAINAREN 29ko OHIKO BILKURAREN AKTA**

Bertaratuak:

Beatriz Artolazabal andrea, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua eta Kontseiluko presidentea.

Sofia Marroquín Guerrero andrea, Euskadiko GGKEen Koordinakundeko presidentea eta Kontseiluko presidenteordea.

Paul Ortega jauna, eLankidetzaren - Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria.

Mikel Sanchez jauna, osasun-alorraren eskumeneko saila ordezkatuz.

Zuriñe Elordi andrea, Emakunde ordezkatuz.

Iker Atxa jauna, kanpo-ekintzaren alorreko eskumeneko saila ordezkatuz.

Lucia Torrealdai andrea, hezkuntza-alorraren eskumeneko saila ordezkatuz.

Josu Iñaki Garay Ibáñez jauna, ogasun-alorraren eskumeneko saila ordezkatuz.

Jone Miren Fernández andrea, nekazaritza-alorraren eskumeneko saila ordezkatuz.

Amaia Barredo andrea, ingurumen-alorraren eskumeneko saila ordezkatuz.

Leixuri Arrizabalaga andrea, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen, Berdintasunen eta Herritarren Partaidetzaren Batzordeko presidentea.

Ainhoa Campo andrea, Arabako Foru Aldundia ordezkatuz.

Ignacio Rodriguez jauna, Bizkaiko Foru Aldundia ordezkatuz.

Fernando San Martín jauna, Gipuzkoako Foru Aldundia ordezkatuz.

Ernesto Sainz jauna, EUDEL ordezkatuz.

Juan Manuel Balerdi jauna, Euskal Fondoa ordezkatuz.

Milagros Domínguez andrea, Iñigo Eguren jauna, Josu Urrutia jauna, Eneko Gerrikabeitia jauna, Iñaki Orube jauna eta Natalia Rodriguez andrea, Euskadiko GGKEen Koordinakundea ordezkatuz.

Víctor Manuel Rodríguez jauna, Natividad Campillo andrea, Gorka Urrutia jauna, Carlos Askunze jauna, Igone Revilla andrea eta Patricia Bárcena andrea, garapenerako lankidetzaren beste euskal gizarte-eragile batzuk ordezkatuz.

Noemí de la Fuente andrea, Kontseiluko idazkaria, hitzarekin baina botorik gabe.

Gainera, presidenteak gonbidaturik, honako hauek bertaratu dira:

Alazne Camiña andrea, Iker del Río jauna eta Cristina Rico andrea, eLankidetzako taldekoak, gai-zerrendako hirugarren puntua aurkezteko.

Eduarne Bengoechea, eLankidetzako genero- eta garapen-teknikaria, gai-zerrendako seigarren puntua aurkezteko.

Marlen Eizaguirre andrea, eLankidetzako kidea, eta Diego Fernández jauna, Kualitate Lantaldeko kidea, gai-zerrendako zazpigarren puntua aurkezteko.

Ezin etorria adierazi dutenak:

Marian Olabarrieta andrea, gizarte-ongizatearen eta gizarte zerbitzuen alorraren eskumeneko saila ordezkatzuz.

Maria Viadero andrea, Olga García andrea eta María del Mar Magallón andrea, Euskadiko GGKEen Koordinakundea ordezkatzuz.

Tokia: eLankidetzako egoitza, eta birtuala Teams bidez.

Eguna eta ordua: 2021eko ekainaren 29a, 12.30 h

Kontseiluko presidenteak bertaratuak agurtu ditu, eta aurkezpen-txandaren ondoren azaldu du, Kontseilu honen barne-funtzionamenduko erregelamenduan aurreikusita dagoenez, maiatzaren 17an egin zela aurreko osoko bilkuran eraturako Batzorde Iraunkorraren lehen bilera, eta bilkura honetarako honako gai-zerrenda hau adostu zela:

1. Aurreko bilkuraren akta onartzea
2. 2021erako Kontseiluaren lan-plana aurkeztea
3. Programen dekretu-proposamena aurkeztea
4. Nahitaezko txostenak egiteko sistema aurkeztu eta onartzea
5. Lege berria egiteko prozesuari buruzko informazioa
6. eLankidetzako genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketarako I. Plana aurkeztea
7. (H)ABIAN 2030 estrategiaren oinarritzko lerroa aurkeztea
8. Bestelakoak eta galde-eskeak

## **1. AURREKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA**

Bilkura honetarako deialdiarekin batera, aurreko bilkuraren akta bidali zen. Euskadiko GGKEen Koordinakundeak oker bat atzeman du Batzorde Iraunkorrerako proposaturako ordezkari pertsonetako baten izendapenean.

Proposatutako zuzenketa egin da, eta inork inolako oharrik egin ez duenez, bertaratuak aho batez onartu dute aurreko bilkuraren akta.

Ondoren, Noemí de la Fuentek jakinarazi du ekainaren 23an Euskadiko GGKEen Koordinakundeak urteko batzarra egin zuela, eta lau kide gehiago izendatu zituela, hiru titular eta ordezkari bat. Kargugabetutako pertsonetako bat ordezkaria zen Batzorde Iraunkorrean, eta horregatik, behin izendapen horien ebazpena eman ondoren, Batzorde Iraunkorrerako Koordinakundeko ordezkariak aldatzeko proposamena onartu beharko da Kontseiluaren hurrengo bilkuran.

## **2. 2021erako KONTSEILUAREN LAN-PLANA AURKEZTEA**

Maiatzaren 17ko bilkuran, Batzorde Iraunkorrek 2021. urterako lan-plana onartu zuen. Presidenteak idazkariari eman dio hitza, proposamena aurkez dezan.



Plan de trabajo  
CVCD 2021\_presente:

Aurkezpen labur bat egin ostean, Naomi de la Fuentek hiru mugari garrantzitsu nabarmendu ditu: (i) programen dekretu berriari buruzko nahitaezko txostena ematea; (ii) lege-aurreproiektuari buruzko nahitaezko txostena ematea; eta (iii) Kontseiluaren barne-erregelamendua berrikustea.

Azken puntu horri dagokionez gogora ekarri du 2016an funtzionamenduko barne-erregelamendu bat onartu zela. Eta ohartu direla aurreko erregelamenduan jaso gabe dauden bi gai arautu beharko liratekeela: (i) GGKEen Koordinakundeko kide ez diren langileen ordezkariak hautatzeko prozedura; eta (ii) bilkura honetako gai-zerrendako laugarren puntuan aztertuko diren nahitaezko txostenak egiteko prozedura.

Inork ere lan-planari buruzko oharrik edo komentariarik egin ez duenez, gai-zerrendako hurrengo puntura igaro gara.

### 3. PROGRAMEN DEKRETU-PROPOSAMENA AURKEZTEA

Beatriz Artolazabalek gogora ekarri duenez, 2007an, Eusko Jaurlaritzako Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzak programen tresna jarri zuen martxan, Garapenerako Lankidetzaren Funtsaren kargurako programetarako laguntzak arautzen dituen apirilaren 3ko 57/2007 Dekretuaren bitartez. Erantsi duenez, hamar urteko ibilbidea egin ondoren, eLankidetzak tresna hori berrikusteko prozesuari ekin zion, eta jarraian Iker del Río eLankidetzako teknikariari eman dio hitza, berrikuspen-prozesu horren buruan egon den heinean programen dekretu berriaren zirriborroa aurkez dezan.



Presentación  
PGM-CVCD.pdf



Borrador Decreto  
programas de coop

Galdera-txandan, Iñaki Orubek galdetu du zein izango diren tramitazio-prozesuaren hurrengo urratsak. Noemí de la Fuentek proposatu du gai horri gai-zerrendako hurrengo puntuan heltzea.

Natividad Campillok galdetu du zein den eLankidetzaren helburua tresna horretarako, funts banagarrien gaineko ehunekoari dagokionez. Paul Ortegak erantzun dio espero duela 2022an lehen aldiz laguntza horien deialdia egiteko aukera izatea, eta zuhurtziaz egingo dela, ikasiz eta deialdia esperientzian oinarrituta doitu, erreferenterik ez duen tresna berri bat delako. Erantsi duenez, ehunekotik eta zenbateko ekonomikotik haratago, tresna garrantzitsu eta estrategiko bat da eLankidetzarentzat.

Behin elkarrizketa amaiturik, Beatriz Artolazabalek adierazi du, 158/2008 Dekretuko 2.2.a) artikulua ezartzen duenez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren funtzioen artean dagoela txostenak ematea, alde aurretik eta nahitaez, Eusko Jaurlaritzaren garapenerako lankidetzaren eremuko xedapen orokorren proiektuen inguruan, eta beraz, urrirako aurreikusita dagoen Kontseiluaren hurrengo bilkuran, osoko bilkurak dekretu-zirriborro horren nahitaezko txostena emateari ekingo diola. Erantsi duenez, maiatzaren 17ko Batzorde Iraunkorreak, nahitaezko txostenak egiteko prozedura berrikusi zen, eta gai-zerrendako hurrengo puntuan gai hori aztertuko denez, presidentek idazkariari eman dio hitza.

### 4. NAHITAEZKO TXOSTENAK EGITEKO SISTEMA AURKEZTU ETA ONARTZEA

Noemí de la Fuentek gogora ekarri du, azken 10 urte hauetan 158/2008 Dekretuan aurreikusitako nahitaezko txostenak egiteko prozesuan izan den bilakaera. Eta jarraian adierazi du Batzorde Iraunkorrek honako erabaki hauek hartu zituela maiatzaren 17ko bilkuran: (i) Batzorde Iraunkorrek txostena egiteko lidergoari eustea; (ii) proposamena egiten duen organoak txostena egiteko prozesuan parte-hartzerik ez izatea; (iii) aztertzen ari den gaien interes berezia duten Kontseiluko beste kide batzuek ere parte hartzeko aukera izatea; eta (iv) eLankidetzak euskarri logistikoa ematea (deialdia, tokia, etab.).

Zehazkiago, programen dekretu-proposamenari buruzko 2021eko lehen nahitaezko txostenerako. Noemí de la Fuentek jakinarazi du Batzorde Iraunkorrak honako erabaki hauek hartu zituela: (i) uztailaren 30era arteko aldi bat irekitzea ekarpenak egiteko, eta eLankidetzak ekarpen horiek guztiak jasotzea; (ii) irailean nahitaezko txostena egitea Batzorde Iraunkorraren baitan, txostena egiteko prozesuan parte hartu nahi duten Kontseiluko beste kideentzat irekia; (iii) txostena onartzea, urriko lehen hamabostaldirako aurreikusitako osoko bilkuran. Jarraian erantsi duenez, berehala bidaliko dira bilkuran erabilitako aurkezpena eta dekretu-zirriborroa.

Noemí de la Fuentek adierazi du datozen hilabeteetan Kontseiluak nahitaezko beste txosten bat egin beharko duela garapenerako lankidetzari buruzko euskal legearen aurreproiektu-zirriborroaren inguruan. Eta ildo horretan jakinarazi du, aztertu beharreko gaia funtsezkoa izaki, Batzorde Iraunkorrak erabaki duela osoko bilkurara bi alderdiak ongi ordezkatzeko moduko talde zabal bat gonbidatzea.

Beste ekarpenik eta kontsultarik ez dagoenez, bertaratutako kideek aho batez onartu dute proposamena.

## **5. LEGE BERRIA EGITEKO PROZESUARI BURUZKO INFORMAZIOA**

Beatriz Artolazabal andreak aipatu duenez, XII. legegintzaldirako Gobernu Programak eta 2020ko azaroan onartutako legegintza-programak aurreikusten dute garapenerako lankidetzari buruzko lege berri bat egitea eta onartzea. Gogora ekarri duenez, martxoko bilkuran jada eman zen horrekin lortu nahi diren helburu nagusien berri. Eta jarraian Paul Ortegarari eman dio hitza, lege-aurreproiektua egiteko prozesuan egin diren aurrerapenak eta egingo diren hurrengo pausoak azal ditzan.



PROCESO  
ELABORACIÓN ANTE

Paul Ortégak adierazi duenez, horrez gain, legebiltzar-talde guztiekin bildu da, eta ekainean Elkarrekin Podemos-IU taldeak sailburua interpelatu zuen Legebiltzarrean, ondoren, garapenerako lankidetzaren politikari buruzko mozio bat onartu zelarik.

Mikel Sánchezek tramitazio-epeen ganean galdetu du. Beatriz Artolazabalek adierazi du epeak asko doitu direla lege-aurreproiektua urtea amaitu baino lehen onartu ahal izateko, baina parte-hartzeari lehentasuna eman zaiola, eta prozesu hori oso positiboki baloratzen duela. Mikel Sánchezek adierazi du planteamendu interesgarria iruditzen zaiola, nahiz eta horrek epeak atzeratu. Beatriz Artolazabalek amaitu du gehien akordio bat lortzeko borondatea aipatuz.

## **6. ELANKIDETZAKO GENERO-BERDINTASUNAREN ALDEKO ANTOLAMENDU-ALDAKETARAKO I. PLANA AURKEZTEA**

Beatriz Artolazabalek adierazi du, aldatzeko prozesuan murgilduta dagoen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak ezartzen duela euskal botere publikoek berdintasuna sustatzeko eta genero-desparekotasunak desagerrarazteko betebeharra dutela. Erantsi duenez, Garapenerako Lankidetzari buruzko 1/2007 Legeak giza

garapen iraunkorreko eredu baten aldeko apustu irmoa egiten du, eredu hori lortzeko helburu besterenezin bihurtuz genero-berdintasuna lortzea; eta jarraian gaineratu du, horregatik, eLankidetzak urteak daramatzala garapenerako lankidetzaren euskal erakundeetan genero-berdintasunaren aldeko erakunde-aldaketarako prozesuak bultzatzen, bere prozesu propioari ere hasiera eman diolarik. Beatriz Artolazabalek Edurne Bengoechea eLankidetzako genero- eta garapen-teknikariari eman dio hitza, prozesua eta ondoriozko plana labur-labur aurkez dezan.



I Plan pro-Equidad  
de Género 2021-202

Edurne Bengoecheak adierazi duenez, gizarte-erakundeetarako aurreikusitako metodologiari jarraitu zaio plana egiteko, eta Oreka Sarearen kanpo-laguntzarekin eraman da aurrera. Horrez gain jakitera eman du plana 2020an jarri behar zela martxan, baina pandemiaren ondorioz atzeratu behar izan dela.

Presidenteak zorionak eman dizkio, eta aldatzea ez dela erraza gaineratu du jarraian, zerbait lehen aldiz egin beharrak beldurra eragiten duelako beti. Eta ildo horretan erantsi du berdintasun-politiketan aurrera egin beharra dagoela, Gobernuaren helburua ez ezik, herrialdearen helburua ere badelako.

## 7. (H)ABIAN 2030 ESTRATEGIAREN OINARRIZKO LERROA AURKEZTEA

Beatriz Artolazabalek jakinarazi duenez, 2017ko martxoan, parte-hartzean oinarritutako elaborazio-prozesua amaiturik, (H)ABIAN 2030 aurkeztu zen, gizarte-eraldaketarako euskal hezkuntza-estrategia. Erantsi duenez, bultzatu beharreko 16 aldaketa aipatzen ditu estrategiak, eta oinarrizko lerro bat egitea, bitarteko neurketa bat eta 2030ean azken ebaluazio bat egitea aurreikusten du. Jakinarazi duenez, 2020an, lizitazio-prozesuaren ostean, eLankidetzak Kualitate Lantaldeari enkargatu zion oinarrizko lerro hori egiteko ardura. Eta jarraian, talde horretako Diego Fernández gonbidatu du egindako lana eta lortutako emaitzak aurkez ditzan.



Informe (H)abian  
Presentación Consejo



Informe  
Indicadores (H)ABIA

## 8. GALDE-ESKEAK

Noemí de la Fuentek iragarri du uda igaro ondoren Garapenerako Politiken Koherentziarako lantaldea deituko dutela.

Paul Ortegak gizarte-eragileak animatu ditu justifikazio-txostenak bidal ditzaten, bigarren eta hirugarren ordainketak gauzatzeko bidean aurrera egiteko.

Aztertzeko gai gehiagorik ez dagoenez, presidenteak parte-hartzea eskertu du, programen dekretu-proposamenerako ekarpenak bidaltzeko epea uztailearen 30era arte zabalik egongo dela gogoratu du, eta, 14:23an, bilera amaitutzat eman du.

**NOEMÍ DE LA FUENTE PEREDA**

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN  
EUSKAL KONTSEILUKO IDAZKARIA**

**BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ**

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN  
EUSKAL KONTSEILUKO  
PRESIDENTEA**